

//////////////////////////////////PRENTSA AGIRIA//////////////////////////////////

Gaia: BURUZIGANTEAK, buruhandiak eta ziganteak sortzeko lehiaketa-desfilea

Angeluko bestak alaitzen dituzten animazioen artean, lehen igandeko ohiko desfilea bestetako momentu nagusi bat da. Kultur eta kirol eragile ainitz elkartzen dituen ekintza hau, urtean zehar aukera bakarretako bat da gure herriko indar bizietaz eta eragileen aniztasunaz ohartzeko.

Baina behar bada, zenbait urtez geroztik, besten desfileak lehenago zuen distira galdu du eta bere berdinamizatzeari parte hartzeko xedez, Manex Goyhenetche Kultur Etxea elkarteak lehen aldiz buruhandi eta ziganteak sortzeko lehiaketa-desfile bat antolatzea proposatu dio Besta Komiteari Angeluko besten ohiko desfilea kari, **2013ko martxoaren 3an** (bestetako lehen igandean). Ekintza honi **BURUZIGANTEAK** izena eman diogu.

Deneri idekia, handi eta ttikiei, elkarte eta partikularrei, lehiaketa honek bakoitzaren sormena eta asmamena sustatzeko asmoa du proiektu artistiko eta kultural baten inguruan. Desfileentzat sortutako buruhandiak eta ziganteak gizakiaren tradizio hedatuenetako bat da eta Euskal Herrian, ohitura hau mantendu eta hedatu da Iparraldean nahiz Hegoaldean. Pertsonaia hauen eraikitzearen inguruan emulazio bat sortzeko xedez, MGKEk lehiaketa hau antolatzea erabaki du, honen **gaia parte-hartzaileen esku** utzia izanen delarik.

Desfilea **Haitz Peanetik** (9:30) abiatuko da **Lamothe** plazara heltzeko (10:30), **Louillot** eta **Casamayou** karriketatik pasatu eta gero, ondotik, Quintaou plazatik iraganen da **Herriko Etxeko plazan** (11:30) bururatzeko. Bertan, mutxikoak eta kantuak eskainiak izanen dira. Epaimahainak **sarien banaketari** ekingo dio. Baldintza onenetan bukatzeko, **jatekoa eta edatekoa izanen da Haitz Peanen**.

Denen parte-hartzea errexteko, **pertsonaien gauzatzeko hiru egun** plantan ezarri ditugu Haitz Pean kultur eta kirol zentroan. Hor, kari hortara leku bat ukanen dugu pertsonaiak egiteko eta atxikitzeko : **otsailaren 16an, 23an eta martxoaren 2an**, 9:00etatik 18:00etara.

Elkarteak, **parte-hartzaileen esku** utziko du ziganteak eta buruhandiak egiteko behar den **materialaren parte bat** (burdinsarea, kartoiak, egunkarietako papera, tapizari kola, leuntzeko igeltsua, tresna batzuk, etab.). **Materialaren eskaera otsailaren 16a aitzin egin behar da** izena ematerakoan sarean, dagokion laukian markatuz eta parte-hartzaileen esku utzi izanen da otsailaren 16an, larunbatarekin, Haitz Peanen.

Lehiaketan parte hartzeko, **baitezpadakoa da mgke.org elkartearen webgunean izena ematea** martxoaren 2a aitzin (otsailaren 16a aitzin materiala eskatzen bada). **Izen-ematea urririk da**.

Beste xehetasunentzat, ez duda eta gurekin harremanetan sar telefonoz 06 24 29 60 70 zenbakira.

Manex Goyhenetche Kultur Etxea

Hardoy karrika, 47 | 64600 ANGELU ■ 47, rue Hardoy | 64600 ANGLET
www.mgke.org | @: mg.kulturetxea@gmail.com | tel: 06 24 29 60 70

/////////////////COMMUNIQUÉ DE PRESSE/////////////////

Objet : BURUZIGANTEAK, défilé-concours de création de grosses têtes et de géants

Parmi les animations qui égaient les fêtes d'Anglet, le défilé traditionnel du premier dimanche est un moment phare des festivités. Rassemblant de nombreux acteurs culturels et sportifs locaux, cet événement est dans l'année une occasion unique qui permet de se rendre compte des forces vives et de la diversité des acteurs de notre cité.

Mais depuis quelques années, le défilé des fêtes a certainement perdu l'éclat qu'il avait auparavant et c'est dans l'espoir de participer à sa redynamisation que l'association Manex Goyhenetche Kultur Etxea a proposé au Comité des fêtes d'organiser pour la première fois un défilé-concours de grosses têtes et de géants à l'occasion du traditionnel défilé des fêtes d'Anglet **le 3 mars 2013** (premier dimanche des fêtes). Cet événement a pris le nom de **BURUZIGANTEAK**.

Ouvert à toutes et à tous, aux grands comme aux petits, aux associations comme aux particuliers, ce concours a pour ambition de stimuler la créativité et l'inventivité de chacun autour d'un projet artistique et culturel. Les grosses têtes et les géants créés pour les cortèges sont l'une des coutumes les plus répandues de l'humanité et au Pays Basque, cette tradition s'est largement maintenue et répandue au Nord comme au Sud. C'est donc dans l'espoir de créer une émulation autour de la confection de ces personnages que MGKE s'est lancée le défi de créer ce concours dont le **thème est laissé au choix des participants**.

Le défilé partira **d'Haitz Pean** (9h30) pour rejoindre la place **Lamothe** (10h30) par la rue de **Louillot** et la rue de **Casamayou** puis passera par l'esplanade de Quintaou pour s'achever **place de la Mairie** (11h30). Là, des mutxiko et des chants seront proposés. Le jury procédera à la **remise des prix**. Pour terminer dans les meilleures conditions, il y aura pour les participants la **possibilité de se restaurer à Haitz Pean**.

Pour faciliter la participation de tout le monde, nous avons mis en place **trois journées de confection** au centre culturel et sportif Haitz Pean où nous disposerons exceptionnellement d'un lieu pour concevoir et stocker les personnages **les samedis 16 et 23 février et 2 mars** de 9h à 18h.

L'association met également à **disposition des participants une partie du matériel** nécessaire à la construction des géants et des grosses têtes (grillage, cartons, papier journal, colle de tapissier, plâtre à lisser, quelques outils, etc.). **La demande de matériel doit se faire avant le 16 février** lors de l'inscription en cochant la case correspondante et sa mise à disposition se fera le samedi 16 février à Haitz Pean.

Pour participer au concours, **il est obligatoire de s'inscrire sur le site de l'association mgke.org** avant le 2 mars (avant le 16 février pour toute demande de mise à disposition de matériel). **L'inscription est gratuite**.

Pour tout autre renseignement, n'hésitez pas à nous joindre par téléphone au 06 24 29 60 70.